

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

379/2016 Foru Agindua, irailaren 20koa, onartzen duena Raul Gomez Iñigo Bastidako Udaleko behin-behineko idazkari-kontuhartzaile izendatzea, udaleko idazkari-kontuhartzaile Koldobika Martinez de Zuazo Delgadori ikasketa lizentzia bat eman baitzaio 2016ko urri, azaro eta abendurako

Bastidako Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, adierazitako aldi horretan Koldobika Martinez de Zuazo Delgado korporazioko idazkari-kontuhartzailea ordezteko, pertsona horri ikasketa lizentzia bat eman baitzaio 2016ko urri, azaro eta abendurako.

Horregatik guztiagatik, udal horretako Administrazio Orokorreko teknikari Raul Gomez Iñigo proposatzen da behin-behineko izendatzea epe horretarako, hau da ikasketa lizentzia horrek dirauen bitartean, hain zuzen ere urri, azaro eta abenduan, harik eta titularra laneratu arte, erakundearen jardunak ahalik eta kalte edo galera gutxien izan dezan.

Bat etorri 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionalako toki administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halaberrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Raul Gomez Iñigo Bastidako Udaleko behin-behineko idazkari-kontuhartzaile izendatzea, lanpostu horri dagozkion eginkizunak bete ditzan titularra ez dagoen bitartean, azken horri ikasketa lizentzia bat eman baitzaio 2016ko urri, azaro eta abendurako.

Bigarrena. Izendapen horrek, ikasketa lizentzia dela-eta udaleko idazkari-kontuhartzaile Koldobika Martinez de Zuazo Delgado urri, azaro eta abenduan ez dagoen bitartean eta harik eta laneratu arte, izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Bastidako Udalarari eta Eusko Jaur-laritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea orobat berau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua
MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ